

ZER BERRI



Aizarnazabalen

URRIA/OCTUBRE 2024

www.aizarnazabal.eus

GAIAK

1- ONGIZATE EMOZIONALA ETA AUTOZAINKETA IKASTAROA

Curso de Bienestar emocional y autocuidado

2- YOGA KLASEAK

Clases de yoga

3- KZ-GUNEAN- BEGIRALEAREN BISITA

Visita del monitor del Kz-gunea

4- GAU BELTZA AIZARNAZABALEN

“Gau Beltza” en Aizarnazabal

5- ARTILE BILKETA

Recogida de lana

6- JAIEN BALORAZIO BILERA

Reunión de valoración de fiestas

7- AMILLUBI PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Presentación del proyecto Amillubi

8- GURE PLAZATXO! PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Presentación del proyecto Gure Plazatxo!

“ONGIZATE EMOZIONALA ETA AUTOZAINKETA” IKASTAROA



Udalaren Ongizate sailak antolaturiko “Ongizate emozionala eta autozainketa” ikastaroa urrian hasiko da. Saioak egun hauetan izan dira: urriak 10 eta 24, azaroak 7 eta 21 eta abenduak 5 eta 19, arratsaldeko 18:00tik-20:00 etara.

Comienzo del curso sobre Bienestar emocional y autocuidado en octubre.

YOGA KLASEAK

Yoga klaseak astelehenetan izango dira, 18:30etatik 20:00etara, lauburun.

Las clases de yoga se impartiran en octubre los lunes en lauburu, de 18:30 a 20:00.

KZ-GUNEA- BEGIRALEAREN BISITA

Begiralearen bisita eguna urriak 23an izango da goizeko 10:00tik 13:00etara.

Visita de la monitora del Kz-gunea el 23 de octubre, desde las 10:00 hasta 13:00.

GAU BELTZA AIZARNAZABALEN

Urriaren 31ean, Aizarnazabalen, Euskal kulturaren Gau Beltza edo Arimen Gaua bezala ezagutzen den eguna antolatu dugu. Jatorrian, egun hau, **udaren amaiera ospatzeko jai egun bat** zen, hala nola, urtaro ilunenean sartu baino lehen, festa egiten zuten aitzina gure arbasoek. Honez gain, gaur egun Arimen Gaua, **hildako ahaideak (senide eta lagunak) omendu eta gogoratzeko eguna bihurtu da**, eta mundu osoan ospatzen da modu ezberdinetara. Euskal Herrian, gure aiton-amonek ortutik kalabazak hartu, hustu eta aurpegi forma eman eta bide bazterretan edo etxe ataritan jartzen zituzten auzokideak izutzeko. Gainera, etxeko trapu zaharrekin mozorrotu eta goxoki eske ibiltzen ziren etxez-etxe, kantuan, arima galduak balira bezala. Modu honetan, hasieran aipatu moduan, aurten Aizarnazabalen ohitura hau berreskuratu dugu. Horretarako, **etxeko trapu-zahar eta ilunak atera, mozorrotu eta aurrerago publikatuko dugun egitarauan parte hartzera** animatzen zaituztegu, udaren amaiera denok batera ospa dezagun!

LH5 eta LH6-ko ikasleek jakinarazten digute urriaren 31ean, Gau Beltzaren ospakizunean, herriko farola guztiak itzalduko direla.

Por primera vez se celebrará “ Gau Beltza o la noche de las ánimas” la noche del 31 de octubre. Los días posteriores se hará saber la programación.

ARTILE BILKETA

Artile bilketaren programan hiru erakundeek hartzen dute parte: Landaolak, Lurgintzak eta Abelurrek. Jasoketa plana **urrian** hasiko da.

Artile bilketan interesdunek 696 433 602 zenbakira deitu behar dute aurrez, lekua eta ordua zehazteko, besteak eta informazio zehatza jasotzeko.

Informazio orri zehatzagoa udaletxean ere eskuratu dezakezue.



Zerbitzu honen tarifak behean zehazten dira. Zerbitzuaren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren gain doa eta beste zatia artzainen gain. Tarifak:

ARTALDEA	KOSTUA (B.E.Z. barne)
1--50	39,44
51-100	65,78
101-150	92,07
151-200	118,36
201-250	144,65
251-300	170,94
301-350	197,23
351-400	223,52
401-500	276,10
501-600	328,73
601-700	381,32
701 <	434,67

En octubre comienza el programa de recogida de lana. Los interesados deberán llamar al siguiente número de telefono : 696 433 602

JAIEN BALORAZIO BILERA

Jaien balorazio bilera urriak 8, asteartean, izango da arratsaldeko 18:00etan udaletxean.

El día 8 de octubre ,a las 18:00, se celebrará la reunión de valoración de las fiestas.

AMILLUBI PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Presentación del proyecto Amillubi , el día 11 de octubre, a las 18:00 en la sala de proyección de Lauburu.

Amillubi proiektuaren aurkezpena urriak 11ean, ostirala, arratsaldeko 18:00etan izango da Lauburuko proiektzio gelan.

Zer da Amillubi proiektua?

En que consiste el proyecto Amillubi?

“Eusten gaituen lurra ondasun kolektibo bilakatzeko helburuarekin abiatutako proiektua da Amillubi Lurra Taupaka.

Gipuzkoan, Zestoako Iraeta auzoan dagoen Amillubi Txiki baserrian eta bere lurretan erein nahi dugu hazia. Urtez urte, nekazal lurrak eta baserritarrak abiadura larrian galtzen ari garela ikusteak kezkatu egiten gaitu eta ekiteko garaia da. Horrexegatik Amillubiko baserria eta bere lurrak erostera goaz; zure, nire, eta gure ondorengo elikagaiak bermatu nahi baditugu, gelditzen diren lur emankorrak babestu behar ditugulako. Herritarrek elikagaiak eta nekazariak lurrak izan ditzaten, elkarrengana batu garen mugimendu agroekologikoa gara eta lurra babestea dugu helburu”.

GURE PLAZA TXO! PROIEKTUA

Guraso agurgarria,

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria saila eta Aizarnazabalgo Udala elkarlanean gabiltza 2022ko urriaz geroztik **Gure Plaza txo! proiektua** aurrera eramaten. 1000 biztanletik beherako 9 udalerritan, 12 eta 17 urte arteko nerabeen sustapena indartzeko planteamendu abiarazi genuen orain dela bi urte, eta ikasturte honetan ere proiektuarekin aurrera dihardugu.

Aisialdia lanerako erreminta bihurturik, eta nerabeen beharrei erantzunez, komunitatearekiko loturak sortu eta herriko dinamikak indartzea da proiektuko hezitzaileen xedea.

Gizarte hezitzaile batek lagunduta ikasturtean zehar nerabeekin ekintza eta jarduera ezberdinak antolatu eta gauzatzen dira bai herri mailan zein herritik kanpo. Honekin batera, komunitateari begirako ekintzak prestatzen ditugu egun berezietan nerabeek eta herriko eragile ezberdinek elkarlanean, herritarrei irekita daudenak eta hauen parte hartzea bilatzen dutenak.

Beraz, 12 eta 17 urte arteko seme-alabarik baduzu eta proiektua ezagutu nahi baduzu, zatoz aurkezpenera.

**Urriaren 4an, ostiralez,
19:30etan Lauburuko proiektzio gelan**

Bertan elkar ikusiko dugulakoan,
Agur bero bat.



